

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko urriaren 13a. VIII. urtea. 2.289. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

110 bat ahots entzuteko aukera, San Frantzisko elizan

Tolosako Abesbatza Lehiaketa baino lehen egin ohi den topaketa larunbatean izango da eta hiru abesbatzek kantatuko dute **05**

Datorren urtera arte agurtu dituzte Berazubiko jaiak

Babarrun jatea, toka txapelketa eta zezentxoak izan zituzten atzo, Tolosako auzoan **02**



Gazte asko hurbildu ziren atzokoan zezen plazara. I. URKIZU



E. MAIZ

→ **Arroyok eta Oiartzabalek irabazi dute krosa.** Urriaren 12arekin batera iristen da urtero Tolosako San Esteban auzoko Herri Krosa. Aurtengoan Unai Arroyo tolosarra izan da mutiletan azkarrena, eta nesken artean Lurdes Oiartzabal lezoarra izan da garaile. Auzoko Kultur Astearen barruan kokatu behar da lasterketa, baina ekitaldi gehiago ere izango dira igandea bitarte. **03**

Jose txo Urrutia harri jasotzaile leitzarrak desafia bota du

Norberak bere pisuaren bikoitza jaso beharko du harri kubikoarekin; bihar egongo da Tolosako Kantabrikan, 19:00etan **07**

23 urteko mendizale bat hil da Txindoki mendian erorikoa izanda

Beasaingo bizilaguna tontorretik gertu zegoen amildegitik jausi denean; bi ordu behar izan dituzte gorpua erreskatatzeko **05**

Arketal tailerraren txotxongiloak daude ikusgai Topic zentroan

Otsailaren 12a arte egongo da zabalik Frantziako Cannes hiriko konpainiaren lanak biltzen dituen Tolosako erakusketa **04**



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873

Gutunak**Egia eta justizia nahi dugu****Lasa eta Zabalaren desageretzearen 28. urteurrena dela eta, idatzitako gutuna.**

Aste honetan beteko dira jada 28 urte, espainiar Estatuko aparatuen esku beltzenek (GAL, Galindo, Vera,...) Joxi eta Joxean desagerarazi, torturatu eta erail zituztenetik.

Azkenaldi honetan modan jartzen ari da biktimez hitz egitea, biktimak gora eta biktimak behera. Guk biktima hitza beharrean, memoria hitza ekarri nahi dugu gogora, memoria ez duen herriak ez omen baitu etorkizunik. Baina bada-gor herri zahar honetan, zenbait gertaera eta zenbait biktima gogoratu nahi ez dituen jendea. 1936ko altxamendu frankistatik hasi behar da, non oraindik ere armen bidez egindako 8.000 erailketa baino gehiagoren ardura penalak eta gertaerak argitzeke dauden. Gasteizko martxoaren 3ko gertaerekin jarraitu behar da, eta, azkenik, German Rodriguezekin hasi, eta Joxi eta Joxean, Jose Luis Geresta *Totito* eta azkenekoa izan den Jon Anzaren kasuraino.

Zigorgabetasuna. 75 urte pasa dituzte zigorrik gabe. Oraindik, egia, justizia nahiz ordainak ezartzeke daude bonbardaketan eraildako eta zauritutako milaka eta milaka herritarrentzat. Berdin espetxeratutako 80.000 herritar baino gehiagorentzat edo herbesterratu behar izan zuten 200.000 herritar eta umeentzat.

Franco hilda, oinarriak jarri ziren erregimen faxistarekin aurrera jarraitzeko, Borboien eskutik. Zigorgabetasunari erreforma politikoarekin, gaizki izendatutako amnistiarekin legearekin edo 1978ko konstituzioarekin eutsi zioten. Bitarte hartan, prozesuan, frankista zaleak demokratizat jantzi ziren, beren krimenak doan burutuz, inolako zigorrik ordaindu gabe. Frankismoak jarraipen bat izan zuen, eta errepresioa areagotu egin zen. Eta ez errepresioa bakarrik; gerra zikinari ere ekin zioten, AAA, BVE, ATE eta GALek. Gauza bertsua dira gaur egun ere bizitzen ari garen, eta aldarrikapenik gabe gertatzen diren «inkontrolatuen»

ekintzak: Jon Anzaren kasua, azkenaldian Bilduko zenbait hautetsiri nahiz ezker abertzaleko zenbait herritarri iristen ari zaizkien mehatxuak.

Azken 35 urteetan, erreformatik hona, erailketak ere ehundaka izan dira, 1.000 zauritu baino gehiago eta 20.000 atxilotu baino gehiago, hauetarik gehienak basatiki torturatuak, gainera; ahaztu gabe, espetxe politikan eta lan mundaun gertatu diren urraketak garai honetan guztian.

Garaileak eta galtzaileak izatea nahi dute herri honetan. Garaipena eta pribilegioak batzuentzat, eta menperatzea eta bereizketa besteentzat. Honek horrela izaten jarraituko du, frankismoak eta estatu terrorismoak eragindako biktimen arazoari bere dimentsio osoan ekiten ez zaion bitartean.

Sufrimenduak kolorerik ez duen arren, batzuek ez dute konponbiderik nahi, eta alde bateko biktimak soilik gogoratu nahi dituzte; garaileak ditugu hauek. Beste aldean, ordea, ahanztura dago, kare biziak estalitako memoria dago, zauriak bakardadean garbitzen dituztenak daude. Hauek historiaren galtzaileak dira. Baina zauri hauek sendatzeko beharrezkoa da ez ahaztea, gogoratzeko, nonberaren zein besteen memoria berreskuratzea. Honegatik da garrantzitsua memoria, ez biktimarena egiteko, biktimari duintasuna emateko baizik.

Honegatik guztiagatik, gerra zikina eta errepresioa behingoz amaitzea nahi dugulako, eta gertaera ilun guztiak argitzeko egia eta justizia eskatuz, datorren bihar, urriak 14, 19:30ean, Triangulotik hasita, *Gerra zikina eta errepresioa amaitu, egia eta justizia nahi dugu* lelopean egingo dugun manifestazioan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Era berean, larunbatean, urriak 15, 12:00etan Benta Haundin dagoen Joxi eta Joxearen omenezko monolitoaren aurrean egingo den lore eskaintza ere gonbidatuta zaude.

■ **Mikel Zabala.**

Tolosako Amnistiarekin Aldeko Mugimendua.



50 lagun bildu ziren babarrun jatean. LURKIZU

Zezentxoan aurretik korrika amaitu dituzte Berazubi auzoko jaiak

Pasa den ostiralean hasi ziren festak, eta astelehenero atsedeen egunaren ondoren, atzo amaitu ziren

Itzea Urkizu Tolosa

Arratsaldeko bostetan hasi zen zezentxoan festa Tolosako zezentxoan. Berazubiko jaien egitarauari amaiera eman zion ekitaldi honek, lau eguneko festen ondoren.

Atzo, Tolosako Udaltxistulari Bandak hasi zuen eguna, 09:00etako kalejirarekin. Eguerdian, 14:00ak aldera, auzotarrentzat nahiz bertaratu nahiz izan zuen edonorentzat babarrun jatea antolatu zuten auzoko lokaleko gazteek. 50 bat lagun bildu ziren bazkaltzeko, auzoko plazan festetarako jarritako karpan.

Bazkari legea egin eta gero, 17:00ak aldera, toka txapelketa izan zen, eta 17:30ean zezentxoak hasi ziren zezentxoan. Herriko hainbat guraso, haur eta gaztetxo erakarri zituen ekitaldi honek.

2007az geroztik, Berazubikobi

lokaletako gazte kuadrilek antolatzen dituzte Berazubiko festak. Urtez urte indar gehiago hartzen ari dira jaiak, eta antolatzaileek garai bateko auzo nahiz herri giroa berpiztea dute helburu.

● tolosa@hitza.info



Gaztetxo asko bertaratu ziren zezentxoetara. LURKIZU

Iragarki laburrak

LANA

■ **Mutila.** Mutil euskalduna behar da, ordu batzuek lan egiteko. Interesa duenak dei dezala 943 65 03 06 telefono zenbakira.

■ **Estetizista.** Tolosan lan egiteko estetizista bat behar dugu. Interesa dutenek, dei dezatela 625 70 50 62 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jan-gela handia, sukaldea, bi

autorentzako garajea, txokoa, lorategia eta trastelekua ditu. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean, 55 metro karratuko atiko rustikoa salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna ditu. Terraza ikusgarria da. Berri-tua dago. Deitu 943 57 13 87 telefono zenbakira.

BESTERIK

■ **Bainuak.** Zure bainua dutxagatik aldatu nahi duzu? Guk 8 or-

dutan egingo dizugu. Dutxa Berri, Gudarien Enperantza 3, Hernani. Interesatuek deitu 943 33 27 29 edo 680 44 22 19 zenbakietara. Bestela, begiratu www.dutxaberri.com helbidean.

■ **Aurkitutakoak. Txakurra.** Zizurkilien, Fraisorotik Anoetarako bidean, txakurra aurkitu zuten atzo eguerdi aldean. Sabueso eta Setter-en arteko nahasketa dirudi. Beltza eta oso gaztea da. Galdutuenak, galde dezala Villabonako udaltzaingoen bulegoan lehenbailen.

Beti Alai
jatetxea

Garaian garaiak janariak
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



10 kilometroak egiteko eguraldi ona izan zuten parte hartzaileek. E. MAIZ

Unai Arroyo eta Lurdes Oiartzabal lehenak, San Estebango krosean

10 kilometroak egiteko Arroyok 32:09 behar izan zuen, eta Oiartzabelek 37:54ko denbora egin zuen

Eneritz Maiz Tolosa

San Estebango jaietan egiten den Herri Krosak hogeita laugarren urtea zuen aurtengoa. 10 kilometroko ibilbidea egiten lehenak Lurdes Oiartzabal eta Unai Arroyo izan ziren, atzo. Gizonezkoen saria, aspaldian ez bezala, etxeko batek irabazi zuen.

Lurdes Oiartzabal lezoarrak, 38 urte ditu, eta 37 minutu eta 54 segundo behar izan zituen lasterketa bukatzeko. Bere atzetik, Rosi Talabera sartu zen helmugan, eta honek 39 minutu eta 29 segundotan gelditu zuen bere denbora. Jarreraian, Amaia Arbillaga tolosarra sartu zen helmugan 39 minutu eta 52 segundotako denbora eginez.

Mutilen kasuan, Unai Arroyo gazteak irabazi zuen lasterketa. 18 urteko gazteak 32 minutu eta 09 segundo behar izan zituen 10 kilometroak egiteko. Bigarren postuan, David Garzia durangarra sailkatu zen, 32 minutu eta 41 segundoko denbora eginez. Bost segundo gehiago behar izan zituen hirugarren sailkatu zen Daniel Sanz Ansoaindarrak.

Parte hartzaile asko izan ziren, eta antolatzaileek 13:00etan egin



Lurdes Oiartzabal helmugara iristen. E. MAIZ

↓ **Sailkapena**

NESKAK	
Lurdes Oiartzabal.	37:54
Rosi Talabera.	39:29
Amaia Arbillaga.	39:52
MUTILAK	
Unai Arroyo.	32:09
David Garzia.	32:41
Daniel Sanz.	32:46

zuten sari banaketa. Lehen sailkatuei, beteranoei, gazteei eta tolosarrei ematez gain, helmugako marra azkena gurutzatu zuenak ere saria izan zuen.

Gazteak eta beteranoak

Gazteen eta beteranoen sariak ere banatu zituzten. Gazteen helmugara iritsi zen lehen neska,

Olatz Agirrebeitia izan zen, eta mutiletan, berriz, Andoni Elustondo izan zen lehena.

Beteranoen kasuan, aldiz, sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu zen Daniel Sanzentzat izan zen saria. Emakumezkoetan ere, errepikatu egin zuen oholtzarako bidea Lurdes Oiartzabal lezoarrak.

Lehen tolosarrek ere, bi aldiz egin zuten oholtzarako bidea. Lehen emakumezkoa Amaia Arbillaga izan zen, eta lehen gizonezkoa, nola ez, lasterketa irabazi zuen Unai Arroyo bera.

Azkena sailkatuak ere saria izan zuen, eta ez nolana hiko ere, bi dozena pastel hartuta joan zen etxera Aitor Goñi. Bukatzeko, dortsalak atarez, hainbat material banatu zuten parte hartzaileen artean.

Gaur antzezlanaz eta bihar flamenkoaz gozatzeko aukera

Igandea bitartean ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dute Ttonttor San Esteban Auzokide elkarteak

E. Maiz Tolosa

San Esteban Auzoa XXIV. Kultur Astea ospatzen ari da. Pasa den larunbatean hasi, eta igandea bitartean estilo eta gustu guztietarako moduko ekitaldiak prestatu dituzte. Kultur Aste hau, Tolosako Udalaren laguntzarekin, Ttonttor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak antolatzen du.

Atzoko lasterketaren ostean, gaur, 19:00etan hasita patata tortilla lehiaketa egingo dute. Behin tripa beteta, 22:30ean antzerkiar gozatzeko aukera izango da auzoan. *Johnny & Mery Jane* antzezlanak izango da, Detritus Teatrus taldeak eskainiko duena.

'Johnny & Mery Jane' antzezlan Maitasun istorio bat da, eta Johnny eta Mery Jane bikote harrigarriak osatua. Johnnyk bere barnebarneko esperientzia bat publiko egiten du, eta betirako desagertzen da ikuskizunetatik.

Mery Janek, ez du Johnnyk egin dituen deklarazioen berri, eta publikoaren aurrean bakarrik aurkitzen da. Johnny, bere buruarekin seguru sentitzen da. Trebea, seduzitzailea eta gozoa da. Mery

Jane aldiz, Errauskineren parekoa da.

Komedia honek, gure inkontzientean dauden mitoen, heroiaren eta idealen erorketa irudikatzen du. Detritus Teatrus taldeak ez du barrea eragin nahi gauza serioekin, «baina barre eginen duzu, barre egin behar delako», diote.

La Pulga eta Lagunak

Ostiralean 23:00etan ikuskizun berezia izango da. Flamenkoa eta txalaparta uztartzen dituen ikuskizuna da La Pulga eta Lagunak eskainiko dutena. La Pulga ezizenez ezagutzen da Askoa Etxeberrieta. Ballet klasikoa ikasten hasi zen lau urte baino ez zituela, eta harrez gero, ez da gelditu. Ondoren, Dj Bertso izango da, mundu guztia dantzan jartzeko.

Larunbatari hasiera 16:00etan emango diote. Alde batetik, altxorren bila jokoa egingo dute, eta bestetik, Mus Txapelketa egingo dute. 16:30ean, haur jolasekin jarraituko dute, eta ordu berdinan graffiti erakustaldia ere izango da. Buruhandiak eta txokolata ez dira faltako, eta gauean kontzertua izango da.

Igandean, 09:00etan diana izango da herriko txistulariekin. 10:00etan berriz, auzoko baserrietan trikiti doinuak izango dira giro alaitzeko. 14:00etan auzoko babarrun jatea egingo dute, eta Kultur Astea amaitzeko dantzaldia izango da.

↓ **San Esteban Auzoko XXIV. Kultur Astea**

URRIAK 13, OSTEGUNA

- **19:00.** IX. Patata Tortilla Lehiaketa. Ondoren, luncha.
- **22:30.** Antzerkia Detritus Teatrus taldearen eskutik: *Johnny & Mery Jane*, rock & roll garaiko amodio istorioa.

URRIAK 14, OSTIRALA

- **22:30.** Kontzertua: La Pulga eta Lagunak flamenkoa eta txalaparta uztartzen dituen ikuskizuna.
- **Ondoren.** Dj Bertso, mundua dantzan.

URRIAK 15, LARUNBATA

- **16:00.** Altxorren bila egingo dute.
- **16:00.** Mus Txapelketa.
- **16:30.** Haur jolasak izango dira, eta zaldi gurdian paseoak egiteko aukera izango dute auzoan.

- **16:30.** Graffiti erakustaldia egingo dute.
- **18:00.** Buruhandiak aterako dira.
- **19:00.** Txokolate jatea gerturatzeko den guztia erantzat.
- **00:00.** Karrocerias Betoño eta Mulambo perkusio taldeen kontzertua izango da.

URRIAK 16, IGANDEA

- **09:00.** Diana herriko txistulariekin.
- **10:00.** Trikiti joaz ibiliko dira auzoko baserrietan barrena.
- **11:00.** Meza izango da auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.
- **12:00.** Toka Txapelketa gizon eta emakumezkat auzoko txarangak alaituta.
- **14:00.** Auzokoek babarrun jatea egingo dute.
- **Ondoren.** Dantzaldia Joxe Jaber Mendizabalen eskutik izango da.



Tamaina, era, kolore,... guztietako txotxongiloak daude Topic zentroan. Inaugurazioa ofiziala 2011ko Titirijaien barruan egingo dute. E.MAIZ

Cannesetik etorritako bizilagun berriak



Otsailaren 12a bitarte egongo da ikusgai Topic zentroko erakusketa berria; 150 pieza ezberdinez osatutako erakusketa da

Cannes hiriko Arketal tailerraren lanak dira; Bruggmanek eta Osmanek zuzentzen dute

Eneritz Maiz Tolosa

Larunbatuz geroztik Topic zentroan bizilagun berriak bizi dira. Cannesetik etorri dira, eta 2012ko otsailaren 12a bitartean Tolosan egongo dira ikusgai. Frantziako Cannes hiriko konpainia da Arketal, eta Greta Bruggman eta Sylvie Osmanek zuzentzen dute.

Topicak antolatzen duen aldiriko zazpigarren erakusketa da honako hau. 150 pieza berriz osatua dago, guztiak kalitate handikoak dira, bai zentzu artistikoan, eta baita sentimentu aldetik ere. Pieza hauen edertasunagatik eta eraikitzen erabilitako materialaren plastikotasun eta aldakortasunarengatik nabarmentzen dira.

Konpainia honek ez ditu bakarrik bere ikuskizunak sortzen. Tailerra denez, txotxongilo sorkuntzaren inguruan ikastaroak ere ematen dituzte.



Konpainia sortu zutenetik, artista plastikoekin edo pintoreekin ari dira lanean. Formen, materialen, koloreen,... aukeraketak estetika berezi eta indartsua ematen die txotxongiloiei.

Toki askotan ibili dira Tolosara iritsi diren lan hauek.

Titirijaien, inaugurazioa

Lan hauek duten kalitateagatik Tolosako XIX. Titirijan egoteko aukeratuak izan dira. Nahiz eta dagoeneko atek zabaldu dituen erakusketak, azaroaren 26tik abenduaren 4ra ospatuko den 2011ko Titirijaien egingo da inaugurazio ofiziala.

Topic zentrorra erakusketa berria ikustera joan nahi izanez gero, aste egunez 11:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara dago zabalik. Asteburu edo jai egunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara zabaltzen ditu atek.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Urriak 15 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Unicaja

saskibalo partida



sarrerak



Abesbatza Lehiaketaren aurreko topaketak hiru koru elkartuko ditu larunbatean

Hodeiertz, Loinatz eta Madrilgo Coro de Voces Graves abesbatzek saioa eskainiko dute San Frantzisko elizan

Imanol Garcia

110 ahots inguru elkartuko dira, larunbatean, Tolosako San Frantzisko elizan. Abesbatzen Lehiaketaren aurretik, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak eta Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen duten topaketan bilduko dira. Hiru abesbatza ariko dira batera: Tolosako Hodeiertz, Enrike Azurzak zuzendua; Xabier Sarasolak zuzentzen duen Beasaingo Loinatz; eta Juan Pablo de Juanek gidatzen duen Madrilgo Coro de Voces Graves.

Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da. Abesbatzen topaketa hainbat urtetan antolatu da. Etenaldiren bat izan du eta 2005ean berriz berreskuratu zuen federazioak. Amaia Garmendia billabonatarra federazio-ko lehendakaria da eta Hodeiertz abesbatzako kidea. «Abesbatza Lehiaketaren aurretik egiten den emanaldia da», dio. «Ohitura bilakatu da kontzertua, eta jende asko joaten da. Nolabait, lehiaketa laster hasiko dela gogora ekarzen du», gaineratu du.

Ohitura da ere parte hartzen duten hiru koruetatik bi gipuzkoarrak izatea eta beste bat herrialde-kanpokoak. Abesbatza bakoitza hogen minutu inguruko saioa prestatzen du, eta gero, hiruak batera bi obra abesten dituz-



Javier Alberdi, Xabier Sarasola, Juan Pablo de Juan eta Enrike Azurza. HITZA

te. «Bi obra horiek zuzentzeko zuzendari bat gonbidatzen dugu», azaldu du Garmendiak. Aurten gonbidatua Javier Alberdi izango da, Aita Donostia abesbatzako zuzendaria. Berak aukeratu ditu bi obrak: Jesus Guridiren *Goiko mendian* eta Ignacio Moko-roaren *Neure maitena*. Koru bakoitza bere aldetik prestatzen ditu bi abestiak, eta emanaldiaren egun berean, entseguak egiten dute elkarrekin.

Amaia Garmendiak dioenez, «Hodeiertzeko kideentzat topaketa honetan parte hartzea oso be-

Mokoroaren eta Guridiren obra bana abestuko dute hiru koruek elkarrekin

rezia da. Iaz Abesbatza Lehiaketan parte hartu genuen. Aurten parte hartzea beste modu batera izango da».

Larunbateko kontzertuan, or-

dea, ez dute lehiaketan izandako tentsiorik biziko. «Askoz lasaiago goaz. Erabat gozatzeko emanaldia da», esan du Garmendiak. Gainera, beste koru batzuekin batera aritza «oso polita» dela dio.

Lehiaketarako sarrerak

Abesbatza Lehiaketa urriaren 29tik azaroaren 1era izango da. Behin bonoak eskuratzeko epea bukatuta, bihurtik aurrera sarrerak erosi daitezke, bai Tolosako Abesbatza Lehiaketarako, baita 23. Abesbatza Kantuaren Europar Sari Nagusirako ere. Azken hau azaroaren 5ean izango da.

Kutxak sarrera banaketarako dituen bi bide bitartez egin ahal izango da erosketak. Alde batetik, Telekutzako 943 00 12 00 zenbakira deituz, eta bestetik, www.kutxa.net helbidean dagoen sarrera salmenta orriaren bidez. Era berean, sarrerak salgai egonko dira ere Leidor aretoko leihatilan, hilaren 15ean eta 16an, 17:00etatik 19:00etara.

Tolosaldea institutuan, arlo soziala garatzen

Italiako Bolzano eskualdeko irakaskuntzaren berri jaso dute institutuko zenbait irakaslek

Erredakzioa

Tolosaldea GLH Institutuko zenbait irakasle, Erasmus programaren bidez, Italiako Bolzano eskualdean izan dira. Gorka Igartua institutuko zuzendariak azaldu duenez, «bertako gizarteak dituen balioak gureak dituenekin alderatzea» izan da ekimenaren helburua. Badira ikasturte batzuk atal teknikoak ez ezik, arlo soziala ere lantzeko teknikak aztertzen ari direla institutuko irakasleak, eta bide horretan urratsak egiteko asmoz izan dira Bolzano eskualdean.

Dolomitetan dago Bolzano, eta hiru hizkuntzetan aritzen dira: alemanez, biztanleriaren gehiengoarena; ladineraz, gutxiengoarena; eta italieraz, gainontzekoena.

Ikasketak alemanez eta italieraz garatzen dituzte. «Italian kokatua egonagatik ere, alemaniar kutsuko eskualdea da. Egungo egoera ekonomikoari dagokionez, beste hainbeste esan daiteke, praktikoki langabeziarik ez baitute ezagutzen», dio zuzendariak.

Tolosaldeko irakasleak Bolzanoko hainbat enpresa eta ikastetxe bisitatu dituzte. Tangram aholkulari bulegoko aditu baten eskutik. «Euskal gizartearekiko antzekotasunak ikusi dituzte, baina gehien harritu dituen hango gizarteak duen konpromiso maila izan da», esan du institutuko zuzendariak.

Gaitasun teknikoetatik harantzago gizarte konprometitua batek beharrezko dituen gaitasun sozialak lantzeko, irakasteko metodologiak behar direla diote institutuko arduradunek. «Lan horretan dihardugu», dio Igartuak. «Garai bateko klase magistralak iraganean artxibatzen, eta etorkizunerako teknika berriekin langileak baino pertsonen heziketan ari gara».

Mendizale bat hil da Txindoki mendian

Erredakzioa Abaltzisketa

Txindoki mendian 23 urteko Beasaingo mendizale bat hil zen atzo, erorikoa izanda.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak herritar baten deia jaso zuen tontorraren inguruan per-

tsona bat amildegira jausi zela esanaz. Larrialdi zerbitzuak heldu zirenerako hila zen. Laino itxia zen ordu horretan Txindokin, eta Ertzaintzaren helikopteroak ezin izan zuen istripu lekura iritsi. Hala, Guardia Zibilari eman zioten abisu.

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko



**Egunkaria
libre!**

www.egunkaria.info

Egunkaria auziaren 2. epaiketaren aurrean

ELKARRETARATZEA

Urriak 14, ostirala
eguerdiko 11:30ean

Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean

deialdi irekia

Hirugarren kontsumo taldea sortu nahi dute

‘BasHerri Taldeak’ izeneko ekimenaren bultzatzaileek, herritarren eskaerei erantzun nahi diete

I. Urkizu

2010eko martxoan hasi ziren Tolosan, lehenengo kontsumo taldea sortzeko bileretan. Hirugarren taldea sortzeko bilera antolatu dute bihar arratsalderako.

Kontsumo taldeetan baserri-taldek eta kontsumitzaileek elkar-lanean jarduteko konpromisoa hartzen dute.

Modu honetara, urte guztian zehar garaian garaiko produktuak kontsumitzeko aukera eskaintzen zaie herritarrei. Inolako bitartekaririk gabe egiten da saletrosketa, eta bi aldeentzat mesedegarria dela defendatzen dute taldeek.

Talde bakoitzaren erabakia

Talde bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu. Antolaketak guztia zehazten dute: zer kontsumitu nahi duten, ekologikoa lehenetsiko duten, zein prezio jarriko dituzten, banaketa nola egingo du-

ten edo kudeaketa zein izango den. Gipuzkoak, besteak beste, EHNE sindikatua eta Biolur nekazari ekologikoen elkarteak aritu dira horrelako kontsumo taldeak sustatzen, eta talde guztiek osatzen dute ekimenari, *BasHerri taldeak* deitura eman diote.

Hirugarren taldea Tolosan

Tolosan, modu honetara funtzionatzen duten bi talde badira jada. Antolatzaileek azaldu dutenez, ordea, herritarren eskaera hazi egin da. Honen aurrean, hirugarren kontsumo taldea osatzeko bilera antolatu dute.

Bilera hau bihar izango da, hilaren 14an, 18:30ean, Tolosako Antonio Maria Labaien kultur etxean. Hasteko, mugimendu hau aurkeztuko diete bertaratuak, eta horretarako hitzaldi-talerra burutuko dute, taldeen funtzionamendua eta filosofia herritarrei helaraziz.

Azalpenak osatzeko, Tolosan sortu zen lehen BasHerri taldeko hainbat kide bertan izango dira, beren esperientzia kontatze alderara.

Bileraren ondoren parte hartzeko interesa dutenek, han bertan izena emateko aukera izango dute.



Lehen kontsumo taldea sortu zeneko bilera, Zerkausion. R. CALVO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosan bi autoeskoletan eskaintzen dute gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera. I. URKIZU

Tolosako bi autoeskoletan gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen dute. Gaztelerazkoak arrakasta handiagoa duen arren, gero eta jende gehiago saiatzen da errepideko arauak euskaraz ikasten.

Errepidean eta autoan ere euskaraz

Itzea Urkizu

Nola erabili behar dira *glorieta, carril de aceleración* edo *estacionar* bezalako hitzak euskaraz? Gidabaimena ateratzeko garaian, nahiz errepidean, gaztelera izan ohi da nagusi. Tolosako bi autoeskoletan, ordea, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen dute.

Solozabal autoeskola da bata. Gipuzkoako osoko herrietan irakasten ditu errepideko legeak autoeskola honek, eta euren kasuan, autoeskolatik bertatik sortu zen gidabaimena euskaraz ateratzearren ideia. Euskarazko informatika programa bat dutela azaldu du arduradunak, eta programa hori osatzeko orduan, zenbait udal-letako euskara batzordeen laguntza jaso dute. Informatikoaz gain, Solozabalen betikoa den paperezko euskarria ere erabiltzen dute gidabaimenaren zati teorikoa azaltzeko.

Aipatzekoa da, DGT Espainiako Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren material honetan oinarrituta sortu dute eurena.

Tolosa Autoeskolan, berriz, duela bizpahiru urte hasi zen gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen, beren kontu-

ra: «Argialetxe bat etorri zitzaigun euskarazko materiala eskainiz, eta onartu egin genuen». Proba bat egin zuten, baina ez zela ondo atera diote. Besteak beste, itzulpenak «ez ziren egokienak»; zenbaitek azterketa gainditu zuten euskaraz, baina autoeskolako arduradunak arabera, ez ziren gustura geratu.

Eusko Jaurlaritzaren eskutik

Eusko Jaurlaritzak akordio moduko bat egin du AEOL argialetxe valentziarrarekin. Tolosa Autoeskolako arduradunak dioenez, «materiala nahiko osoa da: testak, bideoak, liburuak,...». DGT Espainiako Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarekin erabat adostuta egin dituzte liburuak, eta modu honetara, Tolosa Autoeskolak bigarren saiakera bat egingo du klaseak eta ikasgaiak euskaraz irakasten. Nafarroa etorbideko Solozabal autoeskolan, bi urte inguru daramatzate euskarazko eskaintzarekin, eta San Frantzisko pasealekuko Tolosan autoeskolan, berriz, uda aurretik hasi ziren bigarren saiakerekin.

Itzulpenen menpe

Jendearen erantzunari dagokionez, aniztasuna da nagusi. Alde batetik, gero eta jende gehiagok eskatzen du gidabaimena euskaraz egitea, eta gazteak izan ohi dira gehienetan: «Jende gazteak

bere ikasketak euskaraz egiten dituzenez, gidabaimena euskaraz ateratzeko ere erraztasun handiagoa izaten du».

Bestalde, ordea, gidabaimena ateratzeko beharrezkoa den terminologia teknikoa izan ohi da. Tolosa autoeskolako arduradunak azaldu duen moduan, «oso euskara teknikoa da, ez da kalean erabiltzen den euskara». Sarri autoeskolako irakasleek eurek hiztegia erabili behar izaten dutela ere nabarmendu du. Honek guztiak, jendea gaztelera aukeratzera bultzatzen du, eta euskararen aukera oraindik ez da gaztelerazkoa bezain arrakastatsua.

Beharraren arabera

Zailtasunak zailtasun, arduradunek ikasleei beti eskaintzen diete gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera. Prezioari dagokionez ere, berdin ordaindu behar da gidabaimena, euskaraz ala gaztelera egin. Eusko Jaurlaritzarekin bilerak egin eta adostasun batera iritsi aurretik, Beasaingo autoeskola batek lan handia egin zuen liburuak eta materiala euskarazteko bide horretan. Orain, berriz, euren materiala duten autoeskoletz gain, euskarazko zerbitzua eskaintzen duten gainerako autoeskoletz liburu bera erabiltzen dute; aipaturiko AEOL argialetxeakoa da, eta Deba Garaian itzuli dituzte gaiak, bideoak nahiz testak.

Alberto Iñurategiren hitzaldirako azken txartelak geratzen dira

Galtzaundik antolatuta, bihar eskainiko du hitzaldi, afari, solasaldia, Oargi Mendi Elkartearen, 19:30ean

I. Terradillos Tolosa

Alberto Iñurategiren *Porrotaren alde* hitzaldi, afari, solasaldia izango da bihar Galtzaundik antolatuta Tolosako Oargi Mendi Elkartearen, 19:30ean hasita. Bertarako azken txartelak salgai daude, 25 euroren truke Xirimiri kafetegian, Orbela tabernan eta Galtzaundiren bulegoan.

Oargin aforo mugatuarekin ospatuko den formatu bereziko emanaldian, diaporama-afari-solasaldi honetan, Alberto Iñurategi eta bere filosofia gertuagotik ezagutzeko aukera egongo da. Porrotaz ulertutako bere filosofia ezagutzera emango du Aretxabaletak mendizaleak.

Horrela dio Alberto Iñurategi berak: «Mendia kutsatu egin da garaipenaren idolatriarekin. Nik behintzat ikasi dut, inguruan izan dudanjendeak horrela irakatsita, ustezko porrotak badituela elementu interesgarri pila bat».



Alberto Iñurategi Leidorren, n.l.



Josetxo Urrutia leitzarra harri kubikoa altxatzen. IMANOL GARCIA

Apusturako aurkari bila

Bota duen desafioa hartuko duenaren zain izango da bihar Josetxo Urrutia, Tolosako Kantabriko tabernan

Iñigo Terradillos Leitza

Josetxo Urrutia harri jasotzaile leitzarrak desafioa bota du; norberak bere pisuaren bikoitza jasotzea harri kubikoarekin. Orain ikusteko dago desafioak erantzuna izango duen, eta aurkaria izango ote duen lehia horretan. Tolosako Kantabriko tabernan izango da leitzarra bere laguntzaileekin erronkari eutsiko dionari itxaroten, bihar, 19:00etatik aurrera.

Apustua harri kubikoarekin jokatuko litzateke, eta harri horrek apustu jokatzaileen pisu bikoitza izango du. Esaterako, Urrutiak berak 75 kilo pisatzen du, beraz, 150 kiloko kuboa erabiliko luke leitzarrak. Aurkariaren harria, haren pisuaren araberakoa izango litzateke. 70 kilo izango balitu, 140 kiloko kuboa erabili beharko

luke. Edozein harri-jasotzaile lizatu dio apusturako deia. Baina, bada alde zuzeneko baldintza bat: datorren abenduaren erdialdera jokatuko beharko litzateke, edo beranduen, abendua amaitu aurretik.

Telleria edota Izeta III.a

Orain hilabete inguru, Urtzi Telleriak bota zuen gisa bereko desafioa; norbere pisu doblearekin baina harri zilindrikoarekin. Desafioa hark, ordea, ez zuen aurrera egin, eta Urrutia gogoz geratu zen. «Une hartan ni kanpoan nengoen, eta ezin izan nuen hitzordura azaldu. Harriarekin proba batzuk egiten jarraitu dut orduetik, eta gustura geratu naiz nere buruarekin, beraz, desafioa nik botatzea erabaki dut», azaltzen du Urrutiak.

Abenduan burutu beharko litzateke apustua, hilabete horretatik aurrera ezingo bailuke harri jasotzaile leitzarrak. «Denboraz justu samar izango da agian, baina, pentsatzen dut udan txapelketan-eta ibili denak horrelako saio baterako ongi prestatzeko

nahikoa denbora izango duela».

Desafioa pertsona orori lizatu dio, baina, aurkari bezala, bi pertsona ikusten ditu: «Uste dut Urtzi Telleria bera, eta Jesus Mari Iruretagoiena Izeta III.a direla aproposenak. Izan ere, ez dute pisu handiegirik, eta hori kontuan hartzeko da norberaren pisu dobleko harriarekin apustuak egiten ari garenean. Dena den, bata edo bestea edo beste edozein etortzen dela, nik ongi-etorria emango diot».

Estreinu aldiz bota du gisa honetako desafioa Urrutiak, orain arte ez baita ausartu pauso hori ematera: «Orain gutxi, ordea, berotu egin nintzen, eta pentsatu nuen garai egokia zela horretarako. Polita da norbere burua probatzeko. Gainera, azpimarratzekoa da aspaldian ez zuela nafar batek desafiorik botatzen».

Aurkaria izango duen, noiz egingo duten, nolako apustua izango den, zenbat diru jokatuko duten... Biharko hitzorduan gertuko da zehaztuta hori guztia.

→ Laburrak

Festa berezia egingo dute larunbat honetan

BERASTEGI ▶ Urepel kultur taldeak antolatuta, festa berezia izango da larunbat honetan, hilaren 15ean. Duela 6 urte bi herritarren arteko «ezkontza» egin zuten, antzerki taldearen laguntzarekin, eta hura errepikatzeke asmoa dute. Herritar oro gonbidatu nahi dute ospakizunera; afarirako txartela 20 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta ez bazkideek, berriz, 22.

Batzarra astelehenean hezkuntzaren egoeraz

LEITZA ▶ LAB, ELA, Stee-Eilas, CCOO eta Csif sindikatuek baieztatu dute datorren hilaren 27rako hezkuntzan deitu duten greba. Halaber, urriaren 20 eta 25erako ere geldialdiak deitu dituzte. Hauek, bai Iruñian, bai eta Nafarroako gainerako hiri eta herrietan egingo dituzte. Hala, egungo egoeraz informatzeko, eta mobilizazioen agendaren berri emateko batzarrak egingo dituzte Nafarroako zortzi zonaldeetan. Leitzaren kasuan, hilaren 17an egingo dute batzar informatiboa.

Ibilgailuen sarreraren tasa kobratzen hasi dira

IBARRA ▶ Ibilgailuen sarrerari dagokion tasaren ordainagiriak kobratuko dituzte, urria bukatu arte. Epe hori amaitzean, bide exekutiboak kobratuko dira, %20aren gainkarguarekin.

Galtzakomik lehiaketan izen-ematea zabalik da

IBARRA ▶ Galtzakomik lehiaketan izena emateko aukera zabalik dago azaroaren 18ra arte. 943 65 50 04 zenbakira deituta, edo *kultura@galtzaundi.com* helbidera idatzita egin ahaliko da. Informazio gehiago, www.galtzaundi.com-en.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



22°
13°

GOIZA OSKARRE
ARRATSALDEA OSKARRE
BEROENA 23°
HOTZENA 10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeak, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak bilera egingo du gaur, 19:00etan kultur etxean. Plataformako kideek herritar guztiak gonbidatzen dituzte irteeran parte hartzera.

■ **Tolosa.** Hilaren 29ko kantu jiraren parte hartzeko entsegua egingo dute gaur, 20:00etan Eduardo Mokoroa musika eskolatan.

■ **Ikaztegieta.** Herrigintza elkar-teak Lapuebla de Labarcara joateko irteera antolatu du hilaren 29rako. Upategietara joango dira eta izena igandea baino lehen eman behar da elkartera bertara joanda. 50 euro ordaindu behar dira txangoan parte hartzeko. Zubitik irteerako 10:00etan eta ondoren hamaiketako egingo dute. 14:00etan izango da bazkaria eta hauxe da menua: patatak errioxar erara, arkume txuletak entsaladarekin, postrea, kafea eta kopa.

■ **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak igandean Tafallan izango den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du. Irteera zezen plazan izango da 08:00etan. Izena emateko 943 65 50 04 telefono zenbakira deitu behar da. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 12 euro.

■ **Amezeta.** Igandeko Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Irteera 08:15ean izango da Beartzanako aparkalekutik eta izena udaletxean eman behar da. Gaur da izena emateko azken eguna. Helduek 10 euro ordaindu beharko dute eta langabetuek 7 euro. Autobusean Altzoko eta Alegiako herritarrek ere joan daitezke eta izena beren herriko udaletxeetan eman behar dute.

■ **Villabona.** Mintzolak *Ahoa bete* hotsjardunaldiak antolatu ditu azaroaren 2, 3 eta 4rako. Izena emateko 943 69 38 70 telefono zenbakira deitu behar da, edo www.mintzola.com webgunean sartu.

KIROLA

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak Villabona-Hernani ibilbidea antolatu du igandera. Parte hartzeko igandean 08:30ean Olaederra kiroldegira azaltzearekin nahikoa izango da.

ZINEMA

■ **Tolosa.** *Tournée* filma eskainiko dute zine klubaren barruan gaur, 19:15ean eta 21:45ean Leidor aretoan.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Box.a arte elkarteak eta GKO galeriak antolatu-tako *Makina-tu* erakusketa Aranburu jauregian azaroaren 5a bitarte.

■ **Tolosa.** Arketal konpainia frantsesaren 150 lan biltzen dituzten erakusketa ikusi daitezke Topic-en otsailaren 12a arte.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren kalea 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.



Tolosaldea Institutuan bildu ziren atzo gazteak. HITZA

Tolosaldeko 85 bat ikasle aritu dira herri eskoletan

Atzoko jai egunaren jatorriarekin eta izaerarekin ados ez daudenez Tolosaldea Institutuan bildu ziren

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosaldeko 85 bat ikaslek hartu zuten parte atzo goizean, Tolosaldea Institutuan egindako herri eskoletan. Izan ere, ikasle hauek ez daude ados urriaren 12ko jai egunarekin. «Tolosaldeko ikasle asko ez gaude festa egun honen jatorriarekin eta izaerarekin ados; kultura aniztasunari iseka egiten dion egun bat dela uste dugu, inposaketa hutsa gainera, eta klase-ra joan gara guk antolatutako herri eskoletara», argitu zuten.

Tolosaldea Institutuan Laskorain, Orixe eta Tolosaldeko herrietako ikasleak bildu ziren atzokoan, baita jada aipatu eskoletako ikasleak ez diren gazte asko ere. Eskoletan lehenik eta behin, Euskal Herriko eskoletan dauden

hizkuntza ereduaren inguruan hitz egin zuten orain arteko ereduak aztertuz. «Ikasleriaren %38a bakarrik euskalduntzen dutela ikusi dugu», argitu zuten. Era berean, orain gutxi indarrean jarri den ereduaren inguruan hitz egin zuten, hau da, trilinguismoaz eta TIL-Hello-British ereduaz, besteak beste, eta «euskararen normal-kuntzan atzerapauso nabarmena direla» ondorioztatu zuten. Horiek horrela, «trilinguismoak ez digu inolaz ere datozen belaunaldien euskalduntzea ziurtatuko», esan zuten gazteek. Bukatzeko Euskal Herriko gaztetxe mugimenduaritu ziren, eta ondoren, hamaiketako egin zuten.

Atzokoarekin batera, abendua-ren 6an ere ez dutela ezer ospatzeko eta herri eskolak egingo dituztela iragarri zuten gazteek. «Inposaketa hauei eta horrelako egun lotsagarriei erantzutea herri oso baten egitekoa da. Anima zaitzete eta denon artean Euskal Herriak berezko dituen jai egunez osaturiko egutegia lortuko dugu», argitu zuten.

Programazioa

28 KANALA

GAUR
■ **08:30.** On Ein. ■ **09:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00-11:30.** Loliola JM. ■ **11:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **12:00.** Kilometroak Azpeitia. ■ **12:30.** Berbetan. ■ **13:15.** Foofur. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Loliola JM. ■ **14:30.** Loliola JM. ■ **15:00.** Loliola JM. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Kilometroak Azpeitia. ■ **16:30.** Berbetan. ■ **17:15.** Foofur. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Kafe t'erdí (Baliarrain). ■ **18:30.** Gipuzkoako kultura. ■ **19:00.** Bizitxia. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Berbaz. (*16:30-20:00 blokea lau ordu errepikatuko dute)

TXOLARRE IRRATIA (107,6)

GAUR
■ **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. Besteak beste, AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek lanaren inguruan eman dituzten datuetaz hitz egingo dute. ■ **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina. Besteak beste, Juanlu Aranburu Euskal Kantuzale Elkarteko arduraduna elkarriketatuko dute Gipuzkako XV. Kantu Txapelketaren harira. ■ **13:00-13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **13:30-14:00.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00-15:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. ■ **16:00-16:30.** Iraul. ■ **16:30-17:00.** Gaztesarea. ■ **18:00-19:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina (errep.). ■ **19:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia (errep.). ■ **20:00-20:30.** Info 7ko albistegia. ■ **20:30-21:30.** Aittitta. ■ **21:30etik aurrera.** Arrakala.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

